



ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ KARRERAKO LANGILE GISA SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN, PROZEDURA ARRUNTAREN BIDEZ BARNE PROMOZIOKO MODALITATEAN, ADMINISTRARIEN ESKALAKO DEITUTAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ZUZENTZEN BAITA. DEIALDIA UPV/EHU, 2019KO, 2020KO, 2021EKO ETA 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI DAGOKION, ETA ERREKTOREAREN 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ DEITU ZEN.

2024ko apirilaren 23an, Administrazio Eskalako berariazko deialdian (barne sustapena) deitutako lanpostuak zehazten zituen data bereko Gerentziaren Ebazpena argitaratu ondoren, akats bat antzeman da zerrenda horretan, gaur egun aldatzen ari den PTGASen LPZko lanpostu bat barne hartzen baitu.

Zehazki, F1166 lanpostua betetzeko betekizunetako bat aldatzeko proposamena Plangintza Batzordean aztertu da 2024ko apirilaren 11ko eta 2024ko maiatzaren 6ko bileretan, eta gaur egun ez da amaitu lanpostuen zerrenda aldatzeko nahitaezko izapidea.

Egoera horrek akats bat sortzen du administrazio-eskalaren deialdi espezifikoan deitutako lanpostuak argitaratzen dituen 2024ko apirilaren 23ko Ebazpenaren eranskinean. Akats hori zuzendu behar da.

Ondorioz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua araber, *"Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak."* honako hau,

ERABAKI DUT

Lehenengo. - Barne-promozioko modalitatean karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko administrarien eskala deialdian deitutako lanpostuen zerrenda zuzentzea, eskaintako lanpostu zerrendatik honako lanpostua kenduz eta lanpostuak aukeratzeko eskabideetarako emandako epea 2024ko maiatzaren 20ra arte luzatuko da:

U306		BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA												
LZ Zk.	Kode	Lanpostuaren izena	Hor.	H..	Talde	Esk.	O.E./K.P.	Espez..	Maila	H.E.	B.E.	Campus	Lan.	
F1166	280	Arloaren arduraduna	7	C	C	02	14100,8		20	2.15/09		3	N	

Lore Bilbao Artetxe

UPV/EHUko gerentea